

# Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien arloan Euskal Herriko Curriculum Vitae onenarentzako Saria

Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak sari bat eratua dute Euskal Herriko Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien alorretan, adiera zabalenean ulerturik, curriculum gailenena duen eta jardueran dagoen pertsona ospetsu bat urtero ohoratzearen. Sarituriko pertsonaren obra osoak Euskal Herriko kultura modu eraginkorrez garatzen lagundu behar izan du.

## ♦ Esparruak

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientziak.

## ♦ Hautagaiak

Euskal Herriko garapen kulturalaren aldeko jarduera gauzatzen duten ikertzaileak, zientzialariak eta kulturako pertsona ospetsuak.

## ♦ Saria

20.000 euroko sari bakarra emango da.

Saria pertsona bakar bati emango zaio.

Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritziz gero.

Saritutako pertsona, emate ekitaldira etortzea ezinbesteko baldintza izango da saria jaso ahal izateko.

Bere ekarpen nagusiak bilduko duen artikulu bat idatzi beharko du *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, RIEV, delakoan argitaratzeari begira.

## ♦ Hautagaien proposamena eta formalizazioa

Hautagaiak ondorengo hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

- Interesatuak berak
- Unibertsitateetako Institutu eta Sailek
- Kultur edo/eta zientzia erakundeek

Gomendiozko gutunarekin batera, bere Curriculum Vitae osoa eta Curriculum Vitae laburtua (inprimaki berezietan ezinbestean bete beharrekoa) aurkeztu beharko da. Eusko Ikaskuntzaren webgunetik deskargatu daitezke.

Gainera, Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak aurreko urteetan garaile irten ez diren eta egoki iritzitako hautagairik erantsi dezakete, hasieran aurkezturiko curriculuma egokitzen arduratzen direlarik.

Dokumentazioa, euskarri informatikoan, Eusko Ikaskuntzara bidali behar da.

## ♦ Hautagaitzak aurkezteko epeak

Hautagaiak aurkezteko epea **2025eko otsailaren 1etik martxoaren 31a** arte izango da.

Epaimahaiaren erabakia 2025eko maiatzean jakinaraziko da. Sari-ematea 2025eko uztailean gauzatuko da.

## ♦ Epaimahaia

- Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria
- LABORAL Kutxako Lehendakaria
- Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea
- Deustuko Unibertsitateko Errektorea
- Nafarroako Unibertsitateko Errektorea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektorea
- Pabe eta Adour Herrialdeetako Unibertsitateko Errektorea
- Mondragon Unibertsitateko Errektorea
- UNED-eko Errektorea
- Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko Zuzendaritza Orokorra

## ♦ Informazioa

Eusko Ikaskuntza  
Bergara, 19. 20005 - Donostia.  
Tel.: +34 943-310855  
info@eusko-ikaskuntza.eus  
www.eusko-ikaskuntza.eus